

B

BARREN

Mausitxako altxorra



Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

Ordutegi bereziak!

- o Talde murriztuak mailaka.
- o Komunikazio klaseak.
- o 2 egun astean. (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna.)
- o 3 ordu astean. (14:30etatik 16etara edo 10:30etatik 12etara)

Kurtso hasiera urriaren 5ean eta bukaera ekainaren 25ean

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

9 4 3 7 4 4 0 4 0

www.ils.es

ILS



I AM
TÚ ERES

هي ...

GU GARA

VOUS ÊTES
ELES SÃO

Elkar ulertzeako, euskara.

IRAKI BERTZEHENIKO HARTUMAMENI, EUSKARA
TO UNDERSTAND EACH OTHER, EUSKARA
إِكْرَافِ الْبَرْتِزَهِنْكِي الْهَاتُمْامِنْ، عُسْكِرَا
FOUR FIELDS (COMPREHENSIVE) HARTUMAMENI, EUSKARA
IRAKI COMPREHENSIVE, EUSKARA



ELKIMENEN
IRAKI BERTZEHENIKO
(FOUR FIELDS)

09-10 Bazaritua

09-10 ikasturtea

Matrikula zabalik

Ikastaroak / Cursos

- Aurrez asmekoak / Presenciales
- Autoikaskuntza / Autoaprendizaje [BOGA]
- Mistak / Mixtas

Ikastaro bereziak / Cursos especiales

- Enpresak
- AISA (Etarikak / Inmigrantes)
- Merkatarikak / Comerciantes
- Ostalariak / Hosteleria

Euskara

Azterketetarako prestaketa

- Perilak (Osoakidetzak, Hezikuntza, IVAP, Justizia,...)
- HABEren 1, 2, 3 eta 4. mailak, TITULU OFIZIALAK
- EGA

16 uterik gorakoentzat

MATRIKULALDIA

Irailaren 1etik 25era

DIRULAGUNTZAK - BEKAK

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR : 09:00 - 13:00 / 15:30 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa Eparantza 2

20870 ELGOIBAR

Tel. / Faxa: 943 742 731

E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

Termitak

Mendaron, beste herri askotan bezala, termitak, egurrez elikatzen diren intsektu txikiak, bizi dira lur azpian. Horrek guztiak erne jarri ditu hainbat eta hainbat pertsona, beraien etxebizitza preziatua galzorian egon litekeela ikusita. Lehen ez genuen nahikoa hipotekarekin, eta orain, gainera, hainbeste kosta zaigun etxea kolokan.

Hori dela eta, Udalak, duela hiru bat urte, plan bat jarri zuen abian termiten arazoa aztertzeko.

Orain dela hilabete batzuk eman zen aditzera diagnostikoa: egurrezko hainbat etxe kaltetuak, termita egurrean dutela, eta gainontzeko egurrezko etxe guztiak arriskuan.

Inork ez du ziurtatzen termitak janari bila edozein etxetan sartuko ez direnik.

Hori saihesteko hainbat tratamendu begiratu ditu Udalak enpresa baten bitartez, eta egokiena egurrezko etxe guztiak tratatzea izango dela ikusi da.

Momentu honetantxe hasten da liskarra. Etxeen jabe batzuk ordaintzeko prest, eta beste batzuek zentimo bat bera ere ez dutela ordainduko. Norberaren etxebizitza jokoan eta beste aldera begiratu. Ulertezina.

Argi dago gutxi batzuk ez luketela denen arazoa konpondu behar, baina nola iritsi adostasunera? Batzuk diote lege bat atera beharko lukeela Udalak egurrezko etxeen jabe guztiak behartuta egon daitezen eskatzen den diru kantitatea ordaintzera.

Norberak bere kontutik tratamendu horiek egin beharko balituzke, askoz diru gehiago ordaindu beharko luke. Beraz, jende guztia kontzientziaraztea beharrezkoa da.

Ni ez naiz Mendaron bizi, eta niri ez zait etxea buru gainera eroriko termitaren arazoa dela eta, baina edozeini gerta dakiok, eta nori gustatuko litzaiok bere etxebizitza bertan behera erortzea?

Honelako gai simple baten inguruan 40 bat familia ados jartzeko gai ez badira, nola konpondu askoz gai korapilatsu eta zailagoak?

Nik ez daukat erantzuna, baina ea guzti honen irtenbidea denen artean aurkitzen den.

Leire Eizagirre



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Mendaron, etxeen jabe batzuk ordaintzeko prest daude, eta beste batzuek diote zentimo bat bera ere ez dutela ordainduko”

**ARITZA
MONASTERIO**

**ETBko
MONDO DIFFICILE
SAIOAN**

(Bideoa jarri dugu web gunean)



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

**ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA**



Mausitxaren sekretuak

Idiazabal gaztak ospe handia hartzen dihardu mundu zabalean. Azken urteotan, Mausitxa bihurtu da Idiazabal guztietatik preziatuena: Euskal Herrian eta nazioartean makina bat lehen sari eskuratu ditu. Izan ere, Ordiziako lehia-ketan hamar urtean hiru bider irabazteagatik eman berri diote Urrezko Gazta Saria, orain arte sekula banatu gabekoa. Kalitateari erreparatzea da Mausitxaren sekretua, prozesu guztian, Iñaki Ansola artzainaren esanetan. Berak eta bere familiako kideek helburu horrekin lan egiten dute.

Artaldea

Etxeko artaldearen esnea erabiltzen dute Mausitxako gazta egiteko. Idiazabalgo jatorri izendapeneko gazta egiten dute-nez, ardi latxak dauzkate. Mausitxakoak mutur beltzak dira, Gorbeia tipokoak. Iñaki Ansola artzainak nahiago ditu hanka motzak.

Artzainek, gehienetan, artalde homogeneoa nahi izaten dute: itxura bereko ardiak eduki nahi dituzte. Mausitxak lekura egokitu-tako ardiak bilatzen ditu, kalitatezko esnea emango dutena. Artzainen gustu kontuek ere eragina dute artaldean: Mausitxako ardiek mototsa dute, eta, oro har, nahiko hanka motzak dituzte. Nahiko ardi gogorrak dira.

Ardia belarjalea denez, kanpoan belarra jaten egoteari garrantzitsua deritzo Ansolak. "Kalitateko produktua nahi baduzu, ez dago ardia limitera arte esplotatzerik", uste du. Ardiari, azken batean, mendian libre egotea gustatzen zaio. Kanpoko belarrak ahal den ondoen aprobetxatu nahi izaten dituzte.

Guztira, 600etik gora ardi dauzkate. Produkzioan sartuko diren ardi gazteak etxe inguruan ibiltzen diren bitartean, artaldea mendiko larreetan ibiltzen da udan, orduan esne produkzioerik ez da izaten eta. Ekain inguruan aharia botatzen diete. Lehenengo bildotsak azaroaren 15 ingururako etorriko dira. Errapeei erreparatuta, Iñaki Ansola artzainak badaki zer ardi dauden kumea egi-



teko. Erditu baino aste batzuk lehenago etxe ingurura eramango ditu, pentsu pixka bat jan dezaten.

Ehun bat ardi estali gabe gelditzen dira, eta irailean botatzen diete aharia bigarren aldiz. Era horretan, jaiotze guztiak ez dira era batera etorriko. Bigarren txandako ardiak eguraldiak laga arte izaten dituzte mendian, abendu ingurura arte edo.



Lurra

Mausitxa Arriaga auzoan dago. Baserri inguruko hainbat lur erabiltzen ditu hango artaldeak, negu partean batez ere. Lur aldapatsuak dira, baina latxei alda-pa pixka bat ondo datorkie.

Uda aldean, Izarraitzera botatzen dituzte ardiak. Mausitxak hango herri-lur batzuk eta sail propio batzuk erabiltzen ditu. Ansola Mendiko artzaintzarekin gustura dago. "Hau kristoren libertatea da: bota ardiak eta bi egunetik behin etorri... Askotan barrua lasaitzera ere etortzen naiz".

Uda lehor honetan, Izarraizko lurak ez daude Mausitxakoak bezain gorri, mendian lanbroa sarri izaten da-eta. Hortaz, ardiak jan aldetik ondo dabilta goian.

Kalitatezko produktua lortzeko, lurak ondo zaintzea ezinbestekoa da. Belarra egoki egon dadin, Izarraizko lurak eskuz ongarriztatzen ditu Ansolak.



Elaborazioa

Mausitxako gazta ia gehienak antzerakoak dira, baina ez dira berdinak. “Esnea bizirik dagoen gauza bat da, eta gu artisauak gara. Arrazoiak mila: eguraldia, batzuk ilargia ere esaten dute, ardiek jaten dutena, non dauden...”, azaldu du Ansolak.

Abenduan hasten dira Mausitxan gazta egiten. Esnea tankean sartzen dute, kontserbatzeko. Hamabi ordutik behin jezten dituzte ardiak, eta, normalean, lau jertzialdiko esnearekin ekiten diote gaztagintzari.

Gazta egiteko, esnea epeldu egiten dute, Maria bainu sistema batekin (29-30 gradu). Orduan botatzen diote gatzagi naturala, esnea besterik edan ez duten etxe-ko arkumeen barrukietatik ateratakoa. Gatzagi horrek ematen dio Idiazabal gaztari ukitu berezia. Esne hori gogortu egiten da gero, eta ordu erdi pasatutakoan, txiki-txiki egiten da. Hortik irteten den likidoari gatzura esaten zaio, eta txerriei ematen diete. Alde solidoarekin egiten da gazta. Horretarako, moldeetan sartu eta prentsatu egiten dituzte hiru orduz. Gero, kontserbatzeko azala egiteko, ur gazitan sartzen dituzte hamalau orduz.

Gazta eginda dagoenean, lehortu beharra dago. Bi eguneh kanpoan izan ondoren, hozkailuan sartzen dituzte. Legez, bi hilabetez egon behar du gaztak hotzetan, bakterio bizirik ez gelditzeko. Handik aurrera saltzen dituzte.

Salmenta

Gazta gaztea hobeto saltzen dute zaharra baino. Ordiziako gazta irabazlea otsailean egindakoa zen, baina, prozesua moteltzeko, hutsean enbasatzen dute. Bestela, gazta fuerteegia izango zen.

“Azkenean, guretzako konkurtsorik onena egiten den hori ondo saltzea da. Alperrik da, bestela, konkurtsok irabazi eta gaztak saldu ezinda ibiltzea”. Baina arazorik ez dute, hainbat harakinek eta partikularrek erosten dietelako gazta. Batez ere, Elgoibar inguruko herrietan eta Bizkaian saltzen dute.

Artisau lana

Mausitxakoa artisau lana da. Horrexegatik, gaztaren etiketa gorriaren goiko aldean, kaiku bat eta bi ahari agertzen dira marraztuta. Artisauen gaztek baino ez daramate ikur hori.

Momentu honetan, gaztagintzan prezio duinak ordaintzen direla uste du Ansolak. “Azkenean, kalitatea da gure merkatua. Gure helburua produktu on bat egitea da, oso garbi daukagu. Prezioetan gaztagile handiekin ezin dugu konpetitu. Momentuz, ondo ikusten dut artzaintza gazta mundutik. Baina arkumeeekin gertatzen ari dena lotsagarria da, orain dela hogeitaka urteko prezioetan saltzen gabiltza”, dio Ansolak.

MEHATXUAK

Mendiko artzaintzak azken urteotan mehatxu batzuei aurre egin behar die:

Txakurrak: solte dauden txakurrak oso arriskutsuak dira artzaintzako. Ardiak ikaratu egiten dira, eta euren burua edozein amildegitik botatzen dute. Kumea egiteko dauden ardiek abortuak izaten dituzte.

Otsoa: administrazioek neurri berezirik hartu ezean, urte gutxi barru otsoa eskualde honetara bueltatuko dela uste du Ansolak. “Artzaintzarentzako galera handia da hori. Otsoa ala gu, hor ez dago erdi-biderik”, dio. “Otsoak kilometro asko egiten dizek oso denbora gutxian eta artzaintzako arrisku handia da. Hemen [Izarraitzen] gau batean 40 ardi lasai hil ditzake. Ikusita nago Araban, Tologorri inguruan, hogeitaz ardi hilda eta ardi mordoxka bat pikatuta, eta ardi horiek ez dute sendatzeko aukerarik. Han, artzainek ardien ondoan lo egiten dute, Land Roverretan”. Momentu hori iritsiko balitz, produkzio osoa birplanteatu beharko luke Mausitxak, ez baitago prest hala bizi izateko.

Putreak: Ansolak azaldu du putreak ere mehatxua badirela gaur egun. “Urte-bildots bat adarrekin kateatu egin zela esan zidaten. Joan nintzenerako, solte zegoen. Gero etxera joan eta ardi bat atzean dena odoletan: atzeko izterrean pusketa handi bat janda zeukan”. Putreek egin zutela uste du. Erditze sasoiaren kontu handiz ibili beharra izaten du ugaldutik den hegazti horrekin.

Basurdeak: Dagoeneko, mordoa dira inguruetakoa mendietan dabilen basurdeak, eta beste era bateko kaltea eragiten diote artzaintzari. Lurra harrotzean, zelai asko hondatu egiten dituzte.

Hasi da ikasturtea

Hasi da ikasturte berria, eta jaiotzen gorakadaren eraginez, urtetik urtera, gehiago dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako umeak. Hona hemen, Elgoibarko ikastetxeetako eta Mendaroko ikastolako matrikulazio datuak.

Ainara Argoitia

Guztira 1.468 ikasle matrikulatu dira aurten Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Elgoibarren eta Mendaron, eta azken urteotako joerari eutsiz, aurten ere gora egin du matrikulazioak ikastetxe guztietan, Pilarren izan ezik. Izan ere, Pilar ikastetxea ixteko prozesuan murgilduta dago.

Orain sei urte hasi zuten apurka-apurka ixteko prozesua, eta aurten du azken ikasturtea. Matrikulazio kanpainarik ez dute egin aurten ere, eta hirugarren mailatik DBHra arteko gaztetxoak hartuko ditu, 68 guztira. Datorren ikasturterako herriko beste ikastetxetara bideratuko dituzte ikasle horiek, eraikin horretan adinekoentzako zentroa egiteko asmoa duelako Elgoibarko Udalak. Hala, sentimendu gazi-gozoarekin hasi dute 2009-2010 ikasturte hau ikastetxeko arduradunek. Gazia, azkena iritsi zaielako, eta gozoa, eraikinak “pobretxuzko beste erabilera bat” izango duela-

ko aurrerantzean. Hala nabarmendu du Nekane Aranburu zuzendariak.

Pilarren soberan duten lekua falta du Herri Eskolak. 2 urteko hiru gela osatu dituzte hasi berri den ikasturtean, eta, iaz moduan, aurten ere Pilar ikastetxeko lau ikasgela hartu ditu, errentan, 5. mailako ikasleentzako. Aurrera begira, jolastokia egokitu nahi dute, egunen batean haur hezkuntzako gela guztiak bertan hartzeko. Momentuz, Udalak jolastokiaren zati bat estaltzeko arduratu du, hain justu ere, eskubaloiko kantxa dagoen lekua. 700.000 euroko aurrekontua izango dute obrek, eta Udalak lehiaketa bidez erabakiko du lan horiek zeinek egingo dituen. Jolastokiaren zati hori, eguraldi txarra egiten duenean erabiltzeko egokituko dute momentuz.

Guztira hartuta, ikastolak du haur kopuru handiena: 754. Hala ere, kontuan izan behar da ikastolak Otik 16 urte bitartekoak batzen dituela. Izan ere, aurten ez dute batxilergoko talderik osatu.

	ELGOIBAR IKASTOLA	HERRI ESKOLA	PILAR IKASTETXEA	ELGOIBAR BH INSTITUTUA	MENDAROKO SAN JOSE IKASTOLA
Haur Hezkuntzan	339	200	—	—	105
Lehen Hezkuntzan	274	248	17	—	120
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH)	141	—	51	189	—
Batxilergoa	—	—	—	187	—
GUZTIRA	754 iaz baino 49 gehiago	457 iaz baino 52 gehiago	68	376 iaz baino 25 gehiago	225 iaz baino 28 gehiago

* Ikastolako Haur Hezkuntzako datuetan Otik 5 urtera arteko umeak daude zenbatuta, eta Herri Eskolan, berriz, 2 urtetik aurrerakoak. Elgoibarko Haurreskolako datuak falta dira, eguaztenean hasi zelako matrikulazio epea, eta hilaren 30ean amaituko delako. Datu hauek guztiak eguenera arte batutakoak dira. Litekeena da ikastetxeren baten edo gehiagotan apur bat gora egin izana.

MENDARON, IKASTOLAREKIN BATERA HAZTEN



Mendaro hazten ari dela begibistakoa da, eta horren leku-ko garbia da San Jose ikastola. 2004-05 ikasturtean 141 ume matrikulatu ziren Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta aurten, berriz, 225ek eman dute izena, iaz baino 28 gehiagok. Matrikulatu direnetatik 40 umerentzat lehenengo urtea izango da hasi berri den ikasturtea -2 urtekoak dira, 38-, eta ikastolarekin batera haziko dira.

Izan ere, handitze bidean dago ikastola bera ere. Eraikinari beste solairu bat egin diote, eta erabiltzen ez ziren lekuak egokitzen ari dira, gaur egungo beharretara egokitzeko. Hirugarren solairu berri horretan, bost gela egin dituzte guztira: hiru ikasgela, eta gela bikoitz bat. Ikastolako nagusienek hartu dituzte hiru gela horiek, hain justu ere, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek. Beste gela bikoitz hori berriz, liburutegi “moderno bat” eta mediateka bat egiteko egokitzen ari dira, ikastolako zuzendariak jakinarazi duenez. Era berean, igogailua ere

eraiki dute eta baita ezindu fisikoentzako komunak ere, solairu guztietan.

Ikasgelak ez ezik, jangela ere txiki gelditu zaie. Gaur egun, 110-115 ikasle inguru gelditzen dira jaten, eta horrek behartuta, jangela handitu behar izan dute. Baita soinketa gela ere. Euria ari duenean edota hotz egiten duenean, soinketa gela erabiltzen dute jolastokizat Mendaroko ikastolako umeek, eta gela hori insonorizatu egin dute, garai bateko burrunbak saihestearren. Era berean, eraikinaren atzeko aldean soto bat ere bada, orain arte erabili ezin zena. Soto horretan porlana botako dute behar denean erabiltzeko moduan egon dadin.

Obrak iazko urte amaieran hasi ziren, eta azaro bueltarako amaituta egon beharko lukete. Orain, fatxada konpontzen ari dira. Izan ere, lanean ari zirela zartada batzuk agertu dira. Hezkuntza Sailak hartu du obraren zati handi baten ardura, eta Udalak sotoan porlana bota eta txikiaren jolastokia berriztekoa.

ZIKLOAK ZENBAKITAN

Lanbide Heziketak aukera zabaldua eskaintzen du Elgoibarren. IMH dago batetik, eta Meka, bestetik. Aurten, gainera, Meka Albitxuri ere zabalduta, orain arteko aukera zabalduz. Hona hemen IMH eta Mekako matrikulazio datuak.



IMH		
ZIKLOETAN	Proiektu mekanikoen garapena, goi mailako graduari	39
	Fabrikazioa	93
	Muntala	137
	GUZTIRA	269
TXANDAKAKO IMH INGENIARITZA ESKOLA:	Lehenengo mailan	28
	Bigarren mailan	42
	Hirugarren mailan	33
	GUZTIRA	103
<p><i>Lehen mailako ikasleek irailaren 14an hasi dute ikasturtea, hila-beteko prestakuntza trinko batekin, eta enpresetan urriaren 13an hasiko dira. Bestalde, bigarren mailakoak atzerrian dihardute orain, hamabi astez atzerriko enpresa jakinetan lanean. Karrera amaierako proiektua aurkeztu bitartean, lanean eta ikasten ari dira, aldi berean, hirugarren mailako ikasleak.</i></p>		

MEKA	
Merkataritza	14
Eritzaintza	70
Administrazioa	25
Haur Hezkuntza	60
Elektromekanikoa	63
Karrozeria	33
Automozioa	66
Soldadura eta Galderagintza	16
GUZTIRA	347 iaz baino 134 gehiago



Mariasun Larrañaga

Mekako zuzendaria

“Galdaragintzan eta karrozatu/karenatuan erreferente izateko sortu dugu Meka Albitxuri”

Lanbide Heziketako eskaintzari dagokionean, punta-puntako herria da Elgoibar. IMHk eta Meka Ezenarrok milaka gazte prestatu dituzte lanerako azken urteotan. Elgoibarrek berak eta inguruko herriek zituzten beharretarako hezi dituzte ikasleak. Eta bi zentro horien osagarri da orain Meka-Albitxuri ikasgune berria. Albitxuriko poligonoan zabaldu dute 4.000 metro koadroko ikasgunea. Guztira, 7,5 milioi euroko kostua izan du, eta Jaurilaritzak eta erreminta-makina sektoreko enpresek lagundu dute diruz.

Zein helbururekin sortu duzue Meka-Albitxuri zentro berria?

Galdaragintzan eta karrozatu/karenatuan erreferente izateko. Erreminta-makinako espezialitateak dira horiek, baina gaur arte ez zegoen enpresen beharrak asetuko zituen zentrorik hemen inguruan. Enpresek langileak falta zituzten. Hala erabaki zuten Lanbide Heziketako ikastetxe handi bat egitea, espiritu ekintzaile eta berritzailea izango zuena. Punta-puntako ikastetxea da. Makineriari dagokionean, Europako onenen artean egongo gara.

Zer berezitasun ditu Albitxuriko eraikinak?

Bereziki bat aipatuko nuke. Orain arte, Lanbide Heziketako ikastetxe gehienetan, gelak eta tailerra elkarren ondoan izaten ziren. Meka-Ezenarrok ere hala daude. Sarri gertatzen zen batzuk kla-sean egotea, eta, aldamenean, txapistak, jo eta sua. Hori saihesteko, bi zatitan banatuta dago eraikina, eta pasillo batek bereizten eta isolatzen ditu gelak tailerretatik. Eraikin domotikoa da, gainera.

Ez dago orain Mekako proiektua bera eta lanbide heziketako eskaintza, orohar, oso zaituta?

Espazio aldetik, bai, baina bestela oso gertu gaude elkarrengandik. DBH eta Batxilergoaz gain, erizaintzako zikloa, Haur Hezkuntzako, administraziokoa, merkataritzako eta elektromekanikakoa eskaintzen ditugu guk Meka-Ezenarrok. Azken hori otsailan gora igo nahi genuke, baina momentuz hor dago, goian tailerrak prestatzen ari direlako. Albitxurin, automozioa, galdaragintza eta karrozaria eskaintzen ditugu. Lanbide Heziketari dagokionean, hor dago IMH ere, bestalde. Oso harreman estua dugu.

Herrigunetik urruti xamar dago Albitxuri...

Bai, arrazoa duzu, baina lanean ari gara herritarrengana gerturatzeko. Orain, kanpotik datozen ikasleak estazioan batzen ditugu, hona ekartzeko, eta Udalarekin ari gara garraioarena konpontzeko aukerak aztertzen. Albitxurin egoteak badu alde ona ere, baina. Enpresez inguratuta gaude hemen.

Enpresetan lana falta denean zer nolako irtenbidea dute zikloek?

Enpresekin estuki lotutako proiektua da gurea, eta ezin ukatu lana asko jaitsi dela. Automozioan igarri dugu guk beherakada handiena. Nolanahi ere, irteera handiko zikloak dira. Soldatzaileei eta galdaragile oso ondo ordaintzen zaie, eta beharra dago. Gure gazteak, baina, etxekoen babesa dute, eta ez daude prest lan

gogorretarako. Beste ziklo batzuetan, aldiz, eskaerak nabarmen egin du gora, nik uste krisiak berak bultzatuta. Ekonomiaren atzeraldi honek, baina, ezin du luze iraun. Horregatik, nik beti esaten diet ikasleei ikasteko garaia dela hau, eta ez horrenbeste lanpostu on bat topatzekoa. Bi urteko zikloak eskaintzen ditugu hemen, eta hemendik irteterako ekonomia susperraldian izango da.

Langabeziak ikastera bultzatu al du jendea?

Bai. Erizaintzan eta Haur Hezkuntzan igarri dugu bereziki. Bi horietan sekulako eskaera izan da, eta asko kanpoan utzi behar izan ditugu. Haur hezkuntzako zikloan, guk 23-24 laguneko talde bat osatzeko baimena genuen, baina hiru aldiz jende gehiagok eman zuen izena. Azkenean, bi talde osatu behar izan ditugu. Beste batzuk, berriz, euren kasa ari dira. Haurreskoletan lan egiteko prestatuko ditugu. Lehenengo urtea denez, ezin jakin zenbatek lortuko duten lana, baina itxaropentsu gaude. Besteetan emaitzak oso onak izan dira.

Zeri esaten diozu emaitza ona?

Administrazioa ikasi duten hamar lagunetik zortzi lanean daude jada, gehienak praktikak egin dituzten lekuan. Erizaintzako zikloa ere irteera ona da, lan eskari handia dagoelako. Elgoibarren, esaterako, Pilar ikastetxean zahar etxe bat eraiki nahi dute, eta gu Udalarekin harremanetan jarriak gara zeintzuk behar izango dituen jakiteko. Behar horien arabera egokituko ditugu klaseak, eta prestatuko ditugu gazteak. Lanbide Heziketak horixe du, praktikoa dela. Horretan, unibertsitatearen aurretik gaude.





Leku Eder eta San Pedroko haur-parkeak oso antzekoak dira. Zergatik dago horrelako diferentzia ekonomikoa? Herritar batek helarazi du galdera BARREnera. Astekariak Rikardo Garate Hirigintzako arduradunarekin egin du berba, eta hauxe izan da zinegotziak emandako azalpena: "Lehenengo irudia San Pedroko parkean eginiko lanena bakarrik da. Bigarren irudiak, ordea, *Izartu 1* programan beritu diren edo berrituko diren hainbat parke ordezkatzeko ditu: Madalakoa, Leku Ederrekoa, Erretxindikoa, Sigmakoa, Santa Klarakoa, Urasandikoa, Altzolakoa, San Pedro kalekoa eta Mintxetakoa".



Kirol Patronatuko bazkideek zergatik ordaindu behar dute padelean jokatzeko? Herritar batek BARREni egin dion galdera da hori. BARREN astekaria Ramon Mujika Kirol Patronatuko zuzendariarekin jarri da harremanetan, baina galdera egin duen herritarren izena argitaratu eztean, ez diola galderari erantzungo esan du. Bere ustez, BARREneko atal honek ez luke anonimoa izan behar. BARREN astekariak herritarren anonimotasunari eutsiko dio, galderak eta kezak iraingarriak eta pertsonalizatuak ez diren bitartean.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barrene@golbarkezara.com
943-74 41 12



iturgintza

GOKI

ERREFORMAK



DENDA BERRIA IREKI DUGU

Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 254 522



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko, Elgoibar

Elgoibarko jaiak pasa berritan, Madalako Jai Batzordeko eskerrak eman nahi dizkizuegu elgoibartar guztiei.

Beste behin gehiago, herriak herriarentzat egindako jaiak bizi ahal izan ditugu. Jai parte hartzaile, euskaldun eta ez sexistak.

Giro ezin hobea izan da bertan antolatutako ekintza guztietan: 23ko karrakea, hainbat kontzertu, herri-bazkariak, Txiki Eguneko berbera...

Hori dena ezin izango zen aurrera atera dozenaka pertsonen laguntzarik gabe. Denen artean jaiak aurrera ateratzea lortu dugu. Eskerrik asko ekintzetan parte hartu duzuen guztiei, eta bereziki txosnetan lan eginez hori dena posible egin duzuen guztiei. Urtero-urtero, gune askea eta bertatik irteten den jai erdua posible egiten dugu denon artean.

Baina dena ez da poza eta zoriontasuna izan, eta aurten ere gure ondoren ez daudenak, Estatu espainiarreko karteletan bahiturik dituzten eta larriki gaixorik dauden lagunak, ez ditugu ahaztu: Mikel, Mendi, Sebas maite zaituztegu, ia berandu baino lehenago gure artean zaudeten.

Ezin dugu pasatzen utzi ere, nahiz eta Udalak normaltasun diskurtso faltsua behin eta berriz eman, aurtengo jaietan goraka egin duen presentzia poliziala, horren ondorio izan baitira behin eta berriz pankartak kentzea,

baimendutako kontzentrazioa grabatzea, lau gazte identifikatzea, gazte bat jipoitzea presoan pegatinak eramateagatik, gazte batek Ertzantzaren partetik edukitako deia basetik pasa zedin txosna guneko arduradun gisa izena eman izateagatik, eta beste gazte bati terrorismoa goratzea leporatu izana hiru pankarta jartzeagatik... Ezin dugu ulertu beraien presentziarekin lortu nahi dutena, baina beti bezala argi eduki dezatela gune askean ez direla ongietorriak izango.

Besterik gabe, eskerrik asko *jaixak herritik! Herrixantzako!*

Madalako Jai Batzordea ☺

Kaixo senide eta lagunak!

Azken hilabete hauetan bizi izan dugun errepresio aldi bortitzari argudiod, arrazoiz beterik eta duintasunez eutsi diogu. Herrietan, auzoetan eginko lana paregabea izan da. Gure senideen eskubideen aldeko aldarriak Euskal Herriko txoko guztietan izan ditugu presente.

Baina iritsi da garaia guztiok batera uda honetan abiatutako errepresio olatuari aurre egiteko. Helburu argia baitu ekinbide honek, gure senideen eskubideen aldeko aldarrikapen oro ezabatzea, suntsitzea, horretarako esku artean dituzten bitarteko guztiak erabiliaz. Bada, iritsi da garaia, euskal preso politikoen eskubide aldarriak lau haizetara zabalduko ditugu, gure senideei eta lagunei aplikatutako espetxe politika kri-

minalari guztion artean erantzun argi bat emateko.

Nahikoa da! Euskal preso politikoen eskubideen aldarrikapenak kalean jarraituko du, are gehiago gure senide eta lagun presoan egoera gero eta okerragoa denean.

Arrazoiz beterik gaude beraz, beste behin ere indarrean dagoen espetxe politika kriminala eta bere ondorioak salatzen.

Pasa den larunbatean, 12.000 pertsona inguru elkartu ginen Donostian hau dena salatzen, txalo eta irrintzien bitartez, aski dela argi eta garbi azaldu genuen. Salaketa honi jarraipena emateko, hilabetero azken otiraletan, Etxerategi antolatzen duen elkarretaratzera gonbidatzen zaitugu, zuk ere erreprezio hau salatu dezazun, guztion artean lortuko baitugu. Animo!!

Non: plazan.

Noiz: hilabetero, azken ostiraletan, arratsaldeko 8etan.

Etxerat ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Zuhaitz
Gurrutxaga

Txapli-
guen bu-
rrundara
batetik, eta
kanpaia bere
lekutik atera be-
harrean din eta
don bestetik. Ilun-
tzeko bederatziak dira,
ostirala. Afaltzeko astirik ia hartu

gabe, presaka amak emandako 500 pezetak poltsikoan sartu eta korrika banoa aldapa gora plazarantz. Bolatokiko txirio hotsa entzun dezaket jada. Frontoi txikian oilasko erre usaina nabari da. Probatoeki ondoko arbolan lotuta idisko gorri ederra dago, akaso aurten-goan etxera tokatuko da urteroko rifa. Frontoi handiko errebotean ipini dute aurten tabladua, eta altabozak prestatzen dabilta trikitilariak. Lagunek kokatu dute jada dendatxoia elizpean, egurrezko mahaiaren gainean pipak, patatak, txikleak eta gominolak salgai, ea gaurkoan nola doakigun negozioa. Soziedadean dago apuntatuta auzotar bakoitzari dagokigun lana, bolatokian bolak bueltatzea tokatzen zait niri, zortea izan dut, akaso eskupekoren bat jasoko dut. Pozik nago, energia guztiarekin, urteko egunik onenetarikoa da gaur. sanmigelak hasten dira.

“Konta iezadazu burura datorkizun oroitzen politen bat”

Hala bizi ohi nituen auzoko jaiak umetan, Unai, oroitzen goxoak datozkit burura. Gure lanbide petralak eragotzita, ezin izan dut azken urte dezentetan irail bukaerako San Migel Jaietara gerturatu. Aurten bertan izango naiz.

Halako bizipenak izaten genituen auzotar, baserritar edo mendietako mutilok haurtzaroan. Konta iezadazu, Unai, zure kaletar izate horretatik, burura datorkizun oroitzen polit edo xelebreren bat. Agerian da, udatik buelta honetan ez naizela gai sakonegiekin etorri, gure irakurle apurra kontu filosofikoekin aspertzeko beldurrez antza.



Unai
Arrieta

Akordaten naiz Odeoian jende aurrean lehenengo aldiz txankarrankua dantza egin nuenekoaz, bost bat urte izango nituen. Ikastolatik goseak amorratuta iristen nintzenez postreerako amamak prestatuta izaten zuen ahiaz akordaten naiz eta arrozseaz. Asteburu eta opor egunak Mutrikuko kanpinean pasatzen genituen, uda garaian bertatik itsaso gainean ikusten genuen iluntze aurreko oskorriaz akordaten naiz, eta *Kantaita* irratsaioaz. Castañaresko errekan aitarekin, ardo botila hutsari ipurdia zalatu eta ezkailutan nola egiten genuen gogoratzen dut.

“Uda, jaiak, haurtzaroa eta zoriona nahiko loturik agertzen dira gure irudimenean”

Zu bezalaxe, Zuhaitz, azken urte mordoan herriko jaietan izan gabe nago. Memoria arakatuz, San Bartolome Jaietan janzteko prakak bakero batzuk belaun-gainetik moztu nituela akordaten naiz. Erraldi eta buruhandiak, Mauxitxa txaranga eta pista beltzetik jaurtitako suzko erruberak gogoratzen ditut. Sokamutur amaigabe haien aurreko emozioak akordaten naiz, eta Plaza Txikiko enbolatuetan adar aurrean ibiltzen ziren haiekiko sentitzen nuen miresmenaz.

Iragan denbora baten akorduak, Zuhaitz. Uda, jaiak, haurtzaroa eta zoriona nahiko loturik agertzen dira sarri gure irudimenean. Agian, memoria izan liteke bertatik bota ezin gaituzten paradisu bakarra. Honela diote Joseba Sarrionandiaren hitzek: “Gure oroitzenak itsas galeretako oholak bezala ez dira itsas hondotan ezabatzen, ez dute inongo porturik helburu. Gure oroitzenak itsas galeretako oholak bezala ur gainean doaz kulunka, uhinen eraginak ezabatu ezin eta xederik gabe”.



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



1905. urteko turbina hidraulikoa zaharberrituko du Udalak

Andikano eta Maltzaga arteko bidegorriko ibilbidean dago

Andikanotik Maltzagara bitartean hiru zentral elektriko daude, eta horietako batean 1905. urteko turbina hidrauliko bat dago. Udaleko arduradunen arabera, Espainiako turbina zaharrenetakoa izan daiteke, eta berri-egingo dutela adierazi dute: “Erreminta-makinen museoak irekitako bideari jarraitu nahi diogu, alegia, gure ondarea berreskuratu eta ikusgai jarri” adierazi du Alfredo Etxeberría alkateak. Zentral elektrikoaren barruan dagoen turbina hidraulikoa altxor txiki bat dela, azaldu du alkateak, “estatuan ezarri ziren gisa honetako lehenengoetakoa, ziu-rrerrik”. Eguaztenean inauguratu zuten bidegorria, eta aurrerantzean Eibarrera eta Soralezera luzatzeko aukerak aztertzen hasiko dira, alkatearen esanetan.

Bestalde, datorren urtean Ermuaran-Sallobenterako bidegorriaren proiektua idazten hasiko direla aurreratu du Alfredo Etxeberría, eta ondoren, “diruaren arabera” hasiko dira obrek.



Txankakuaren feria egingo dute bihar

Txankakua merkatarik elkarteko dendariak kalera irtengo dira bihar, zapatua. 11:00etatik aurrera, Plaza Handian jarriko dituzte salgai produktuak, eta 13:30ean 600 euro zozketatuko dituzte, 100 euroko sei erosketa txeketan. Arduradunek gogorarazi nahi dute saria jasotzeko Plaza Handian egon behar dela zozketa egiten den unean. Bestalde, haurrentzako puzgarriak, txu-txu trenea eta txosna bat jarriko dituzte. 14:00ak arte egongo dira produktuak ikusgai.




Zubibaik antolatutako zaldi irteerak arrakasta handia izan du



Zaldian ibiltzeko aukera izan zuten herritarrek joan zen domekan, Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta. Elkartekoek esandakoaren arabera, jende asko izan zen ekitaldian.

Sansongua baserriko hiru zaldi eta poni bat aritu ziren lanean. Umeak izan ziren nagusi, baina helduak ere ausartu ziren zaldi gainean ibiltzen. Askorentzat zaldi gainera igotzen ziren estreinako aldia zen, baina errepikatuzeko gogoia adierazi zuten amaieran. Zubibai elkartekoak gustura geratu ziren estreinako esperientziarekin.

Lekua **Kanposantuko arkuak**



Olason egiten ari diren obraren ondorioz, kanposantuko arkuak zartadak agertu dira. Sarrerako eskaileretan eta hilobietan ere igarri daitezke obraren kalteak, eta pitzadura horiek areagotu ez daitezke neurriak hartu ditu Sukia enpresak. Olasoko arkuak XV. mendekoa da, eta horren balio historikoa kontuan hartuko dutela adierazi du Rikardo Garate Hirigintzako arduradunak. Bere esanetan, gaia kontrolpean dago, eta momentuz ez dago larritzeko arrazoirik.

Berbia **Agenda 21**

Elgoibarko Udalak herritarrak animatu nahi ditu Agenda 21 proiektuari proposamenak egiteko. Udaleko arduradunak herriko diagnostia egiten ari dira, eta horretarako Udaleko ordezkari politikoek, udal-teknikariek eta herritarrek egiten dituzten ekarpenak hartuko dituzte kontuan. Proposamenak irailaren 20ra arte bidali daitezke, ingurumena@elgoibar.net helbidera.

Irudia **Kilo erdiko onddoa**

520 gramoko onddoa dauka eskuartean Haritzek, 5 urteko elgoibartar irribarretsu honek. Hasi berria da perretxiko denboraldia, eta Elgoibar eta inguruko basoak hasi dira fruitu preziatuok azaltzen. Haritzek, aitaren laguntzaz, Aiastia-San Migel inguruetan topatu zuen ale eder hau, eta gurasoekin batera tortillan jan zuen gero, bapo-bapo geratu arte.



Alderdi Egunera joateko autobusa jarri dute

Irailaren 27an Alderdi Eguna ospatuko du EAJ-PNVk Gasteizen, eta Elgoibartik autobusa egongo da bertara joateko. Interesatuak 675 718 466 telefonora deitu dezakete.

1969an jaio eta Ikastolan ikasitako bazkaria

1969an jaio eta Elgoibar Ikastolan ikasitakoek euren 40. urtebetetzea ospatzeko bazkaria egingo dute urriaren 31n, Sigma jatetxean. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte ondorengo kontu korronte zenbakian, urriaren 28a baino lehen: 2101 0036 66 0012438016. Informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefonoetara deitu daiteke: 619 121 332 (Maria Pilar) edo 656 722 415 (Lorea).

San Antolineko jaietako zozketa egin dute

San Antolin jaietako zozketan Kanariar Uharteetara bi lagunentzako bidaia eta jan-edanez beteriko karretila zozketatu zituzten. Pedro Morales eta Asier Arriola izan dira irabazleak.



Hasi da gripe arruntaren kontrako txertatze kanpaina. A gripearen kontrako kanpainarekin bat egin ez dezan, aurten gripe arruntaren kontrako txertatzea aurreratu egin du Osakidetzak.

Badakazu gripearen kontra txertatzeko asmorik?



Roman Igartua
70 urte, jubilatua

Urtero hartzen dut gripe arruntaren kontrako txertoa, eta aurten ere joango naiz, baina ez A gripeak kezkatzen nauelako. Hori ipuina da. Nik asma daukat, eta bronkioetako arazoekin ibiltzen naiz. Horregaitik hartzen dut, orain arte hartu dudanetan ondo egin didalako beti.



Nieves Iza
80 urte, etxeoandrea

Urtero hartzen dut gripe arruntaren kontrako txertoa, eta aurten ere badaukat asma. A gripearen kontrakoak, baina, beldur pixkat ematen dit, gauza asko entzun direlako horren inguruan. Sendagileari galdetuko diot, eta hark esaten didanaren arabera jokatuko dut.



Mari Paz Arkauz
55 urte, etxeoandrea

Ez daukat asmorik. Ez dut inoiz hartu, eta aurten ez dut arrazoi berezirik ikusten. A gripeak ez nau kezkatzen. Senarrak gaur hartu du. Gaztetan tailerrean eman zioten, eta orduantxe hartu zuen handiena, baina diabetesa topatu ziotenetik, beti hartu du, eta on egin dio.



Lorenzo Juaristi
81 urte, jubilatua

Oraindik ez naiz joan, baina badaukat hartzeko asma. Iaz ere hartu nuen, eta ondo ibili naiz. A gripeak ez nau batere kezkatzen. Zenbat gauza asmatu ote dituzten horren inguruan! Bestearen antzekoa izango da hori ere, eta harrapatzen badugu pasatuko dugu, eta punto.



ESKERTZA

ANA MARI MUGUERZA ORIA

2009ko irailaren 5ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

M. CARMEN ZUAZUBIZCAR GOENAGA

2009ko irailaren 12an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



14

estetika gehigarria



estetikaalire

Ondategia: Astelehenaetik ostirakera 09:30-12:30 / 15:00-20:00 - Astiazkena: 09:30 - 19:00
Larunbata: 10:00 - 13:00 - Upatz zaharra, 1. beheko - Tel.: 943 531 636 - Elgoibar



GORPUTZEKO TRATAMENDUETAN
ETA FOTODEPILAZIOAN ESPEZIALIZATUAK GAUDE.
ESKA IEZAIGUZU AHOLKUA.

FOTODEPILAZIO ESKAINTZA BERRIA.

- Besapeak, sesioko 36,60 eurotik aurrera.
- Izterondoak, sesioko 59,30 eurotik aurrera.

ALIRE ESTETIKAN FOTODEPILAZIOA DENON ESKURA.



TRATAMENTUAK: Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitisaren aurkakoak, erreduktoreak) - Ongizate tratamenduak - Masejeak -
Depilazio leserra, elektrikoa, orgizarizkoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Hantetako estetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetikoak

Uda ondoren, berreskuratu azala eta ilea

Gorputzeko azalak eraso gogorrek jasaten ditu udan, eta, ondorioz, edertasuna galtzen du. Beroa, hidratazio falta eta eguzkia hartzea izaten dira udako kalterik gogorrenak gure azalarentzat. Udarako gomendiorik onena eguzkitik babesteko krema erabiltzea izaten da.

Jarraian, uda ondoren, azala eta ilea berreskuratzeko eta berrindartzeko hainbat aholku aurkituko dituzu:

Azala esfoliatzea izango da lehenengo pausoa, udan hartu duen zikinkeria guztia garbitzeko. Krema esfoliantea erosi egin daiteke, edo etxean bertan ere prestatu daiteke, oliba-olioa, almendrak eta melokotoi zuritua nahastuta. Mugimendu zirkularrak eginez, masaje arinak ematea komeni da, orbanak eta ezkatat ez irteteko.


Azala hidratatzea oso garrantzitsua da. Horretarako, kremak edo esne hidratatzailea erabili daiteke, azala kanpotik hidratatzeko. Hala ere, benetako hidratazioa barneko aldetik egiten da. Horretarako likido asko edatea komeni da. Gomendagarriak dira, era berean, onagra-olioa, garagardo legamia edota silizioa. Elikagai horiek azalari onura handia egiten diote.

Udan hartutako kolorea ez galtzeko eta azala osasuntsu mantentzeko, hainbat jateko oso onak dira: barazkiak, azenarioak eta espirulina algak, besteak beste, azala elikatzen laguntzen dute.



Igerilekuetako kloroak eta itsasoko gatzak kalte handia eragiten diote ileari. Lehortu egiten da, eta, uda ondoren, maskara hidratatzaileak erabiltzea komeni da.

Azkenik, udarako gehiegikeriak alde batera utzi eta eguneroko dieta berreskuratzea komeni da. Biotaminak hartu, likidoak edan eta antioxidanteak hartzea gomendatzen dute. Aholku horiekin, berehala konpontzen dira azalak eta ileak udan jasaten dituzten kalteak.



Aurpegi eta gorputz-tratamendu eksklusiboak, aromaterapiak. Edertasun naturala.

P.M. Urruzuno, 27 - Tel.: 943 74 31 32

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189




Alquidepil

DIDO LASERRAREN ESKAINTZA

%20

%30

%50

San Inazio, 4 beheak - 20870 ELGOIBAR
 Telf.: 943 742 725 - www.ammergroup.es



Udazkenari ongi-etorria laser depilazioarekin

Udako beroari agur esan, eta hotzari ongi-etorria egiteko unea iritsi da. Eta une hori da laser depilazio egiteko momenturik onena. Laser depilazioa udazkenean hasita, udarako hainbat saio egiteko denbora ematen du. Gainera, sasoi honetan eguzki gutxiago hartzen da, eta azala kolorerik gabe egotea komeni da. Garaiz hasiz gero, hurrengo udaran azal leun eta garbia edukiko duzu. Laser depilazioak emaitza bikainak ematen ditu. Momentuz, beste edozein depilazio mota baino eraginkorragoa da, baina ondo egitea garrantzitsua da.

- Laser depilazioaren abantailak:
 - Sistema azkarra eta iraunkorra da.
 - Ilea saiakera batetik bestera gutxitzen da.
 - Gorputzeko atal guztietan egin daiteke.
 - Ez da anestesiarik behar.
 - Beste depilazio sistema batzuk baino min gutxiago egiten du, eta, gainera, betirako da.
 - Ez du zaintza berezirik eskatzen. Saio bakoitzaren aurretik eta ondoren eguzkia ez hartzearekin nahikoa da.
- Jarraitu beharreko pausoak:
 - Laser-depilazioan espezializatutako zentro batera joatea da egin beharreko lehenengo lana.
 - Medikuren edo espezialistaren aholku eta gomendioak jarraitu behar dira.
 - Azalaren azterketa egitea komeni da, eta ileak kendu nahi den atala tratamendua jasotzeko gai den ala ez ikusi behar da.
 - Tratamendua beti profesionalen aholkuean egin behar da.



FOTODEPILAZIOA



PATILLAK
 IZTERRONDOAK
 IZTERRONDO UGARIAK
 AURPEGI OSOA
 HANKA ERDIAK + OINAK
 BESOAK + BESAPEAK
 GORPUTZA HIDRATATZEKO KREMA

LEHEN	ORAIN
49 €	25 €
66 €	49 €
70 €	65 €
121 €	89 €
187 €	99 €
222 €	129 €
	8,90 €

Orain, fotodepilazio zerbitzuarekin, 3 € gehiagogatik, hidratazio krema doan.



%30eko
 deskontua
 litroko txanpuekin,
 txanpua eta
 egokitzailea
 erosiz gero



Txanpuarekin
 eta
 egokitzailea erosita,
 tratamendua
 opari



IDOIA ALVAREZ

AUPA ZEN ZENTRUKO ARDURADUNA

ezta? Printzipioz, tratamenduak emaitza onak izan ditzan, norberak bere buruarekin ondo sentitu behar du eta lehen fase honetarako topology sistema daukagu, akupunturako puntuekin gorputzaren oreka lortzea da helburua. Beste alternatiba edo osagarri bat photon sistema da, drainatze sistema hobetzen du eta pertsonen ongizatean laguntzen du. Beste hainbat alternatiba ere baditugu: garbiketa sakonak, oxigenazioa, bitaminak, despigmentazioa, mikrodermoabrazioa, radiofrequentzia,... eta ongizate sentsazio honen osagarritzat depilazio laserra proposatzen dugu.

Zer aholku emango zenituzke udan azala hainbes te ez kaltetzeko?

Lehen aholkua eta garrantzitsuenetakoa eguzkia neurritz hartzea eta babes egokia erabiltzea da. Garrantzitsua da, baita ere, norbere azalaren eta eguneroko ohituren arabera produktua aukeratzea. Udak azalean sorrarazten dituen zauriak udazkenean osatzen dira, eta ondo zaintzen ez diren zauriak, azaleko eta gorputzeko oroimean gelditzen dira. Uda sasoiari hartu beharreko lehen neurriak ur asko edatea eta hidratazio kremak erabiltzea dira. Ez dago edari magikorik, baina azal motaren arabera tratamendu egokiena zehaztea da klabea.

Gaur egun, krisia dela eta, igarri da beherakadarik edertasun tratamenduetan?


Egoera ekonomikoak guztioi lehentasunak zehaztera derrigortzen gaitu; beraz, osasunean eta edertasunean ere antzematen da egoera ekonomiko desatsegin hori. Baina beste erakundeek egiten duten bezala, gure apustua ere berrikuntzaren aldekoa da, eta gure bezeroen aukeretara moldatutako zerbitzuak eskaintzen ditugu. AUPA ZEN zentroko bezeroentzako eskaintza lehiakorrenak diren deskontuak eta bonoak eskaintzen ditugu, hala nola, kirolarientzat programak, perfil kronikoa dutenentzat programak, eta programa bereziak ezkongaiantzat, zein mehetu nahi dutenentzat. Koste baxuko tratamendu osoak eskaintzen ditu AUPA ZEN zentroak.

Uda ondorenerako tratamendurik eskaintzen al du AUPA ZEN zentroak?

Uda da azala gehien kaltetzen duen urtaroa. Eguzkiaren aurrean denbora gehiegi pasatzeak, aire girotuak eta igerilekuko kloroak asko kaltetzen dute azala. Ondorioz, uda ondoren beharrezkoa da azala tratatzea. Guztioi ezagutzen ditugu eguzkiak egurrean dituen eraginak (leihoetan, ateeetan,...), uda ondoren beharrezkoa da lixatzea eta pintatzea. Gure azalari eta gorputzari ere gauza bera gertatzen zaio. Ez badugu ezer egiten, elastikotasuna berriz ere lortzea ia ezinezkoa da. Egurrezko leiho bat aldatu daiteke, baina gure azala ez.

Uda ondoren, zeintzuk dira gehien eskatzen diren tratamenduak eta egokienak?


Uda ostean, udan egin dugun bizitza osasuntsua mantentzea izaten da askoren promesa, horretarako programa promozional batzuk prestatu ditugu. Pertsona bakoitzari proposamen pertsonalizatu bat prestatzen diogu norberaren egoera eta aukeren arabera. Osasunean eta edertasunean inbertitzea, autoestimazioan, konfiantzan, alaitasunean eta optimismoan inbertitzea delako. Inbertsio ona da



Osasun eta Edergintza Zentzua

- DIETETIKA
- OSTEOPATIA
- AKUPUNTURA
- ESTETIKA ZERBITZUAK,
GORPUTZ TRATAMENDUA
ETA LASER DEPILAZIOA

**EZAGUTU
GAITZAZU
KONPROMISORIK
GABE**




Jausoro kalea, 1 • Elgoibar • Telefonoa: 943 74 34 40

ETXEBIZITZA BERRIENTZAT PROMOZIOA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK

Muelledun koltxoa, biskoa 2 aldeetan
eta biskoizko burko leuna

CELTA somierra,
lankotasun
erregulagarriarekin




3D Biskoaire koltxoi grisa
eta biskoizko burko leuna



80/90 x 190..... 450€
120/135 x 190..... 670€
140/150 x 190.....695€

MOYA somierra




Muellezko koltxoa
eta biskoizko burko leuna



80/90 x 190..... 255€
120/135 x 190..... 355€
140/150 x 190..... 410€

ZURE GORTINAK PRESTATZEN DITUGU. NEURRI GUZTIETAKOAK DITUGU. APARTE SALTZEN DIRA.

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



GIPUZKOA

BIZKAIA

ARABA

NAFARROA

IPARRALDEA

KANTABRIA

ASTURIAS

GALIZIA

Sagardotegiak

Urriak 3, zapatua
12.00-13.30 **UNTZAGAN**
18.00-amaitu arte



EIBARREN

Antolatzailea:
...eta kitto!

Sagardotegiak:

Arizia, Artola,
Astiazaran-Iruin,
Bereziartua,
Gartziategi, Isastegi,
Mina, Oialume Zar,
Otsua Enea, Txindurri
Iturri, Rezola, Zapiain,
Axpe, Etxakoa-Iturrieta-
Iarritu, Larralde,
Txopinondo, El Muro-
Tio Sidro, Cortina,
Menendez, Manzanova

Zer egin duzu uda honetan?

Gehienbat, Mintxetako igerilekuetan ibili naiz. Udalekue-
tan ere egon naiz Lizarran. Frantzian, Gasteizen eta san-
bartolomeetan ere ibili naiz.

Eguzkia hartzea eta moreno jartzea gustuko duzu?

Nahiago dut urtean freskату, baina kolorea hartzea ere
gustatzen zait.

Udan gehiago ligatzen da?

Neguan baino gehiago. Igerilekuetan eta kalean denbo-
ra gehiago egoten gara.

Oporrak amaitu eta eskolan hastea gogorra egin zaizu?

Goizean goiz jaikitzea izan da gogorrena, baina bestela
pozik hasi dut kurtsoa.

Zer moduzko irakasleak dituzu aurten?

Egun gutxi daramatzat eskolan, baina itxura ona hartu
diet.

Zein ikasgai gustatzen zaizu gehien? Eta gutxien?

Natur Zientziak eta Soinketa. Gutxien Matematikak gus-
tatzen zaizkit.

Handitzen zarenean, zer izan nahi duzu?

Ez daukat argi: bulegoko langilea edo irakaslea.

Inork ikusten ez zaituenean, zer egitea gustatzen zaizu?

Ez dut ezer berezirik egiten. Dantza eta balleta egitea gus-
tatzen zait, baina jendaurrean ere egiten dut.

Esna zaudenean, zerekin egiten duzu amets?

Ez daukat amets handirik. Dena orain arte bezala joaten
bada, konforme egongo naiz.

**Marrazki bizidunetako zein pertsonaiarekin identifika-
tzen zara?**

Simpson's gustatzen zait asko. Bart bezain gaiztoa ez
naiz, baina Lisa bezain ikasle ona ere ez.



Kiribilka



**Txorro Morroren
Luma Gorri ikuskizuna**

Kiribilka egitasmoaren ba-
rruan, Txorro Morro taldearen
Luma Gorri ikuskizuna izango
da datorren barixakuan. Kiribil
joan zen astean itzuli zen opo-
rretatik, eta lau kiribiltxorekin jar-
dun zuen Plaza Handian Elgoi-
barko umeak alaitzen. Gaur ere
bertan izango dira guztiak,
17:30etik aurrera.



ILARGIA ZERGATIK EZ DA ERORTZEN?

Paula Antxustegi

6 urte

Grabitateak daukan pisuak eusten du ilargia. Estralurtarrek ere laguntzen diote ez jausten.



Galder Zabala

6 urte

Grabitateagatik. Kohetean joango nintzateke hara, eta hango zuloetan eguzkia hartuko nuke.



Jurdana Alberdi

7 urte

Grabitateak gauza pisutsuak gora eramaten dituelako. Izarrak eta estralurtarrak bizi dira han.



Jurgi Casado

7 urte

Ilargiak hegan egiten da-kielako. Handik planetak ikusten dira, baina ez dut nahi joan.



Mikel Cortes

7 urte

Grabitatearen eraginez, ilargiak flotatu egiten du, eta ez da erortzen. Han ez da inor bizi.



Nora Rodriguez

7 urte

Ilargiaren azpitik lainoak daudelako. Izarrak ere ilargian bizi dira eta ez dira jausten.



Bernardo Ezenarro, 2 behea
20870 ELGOIBAR. (Gipuzkoa)
Tel. 943 031 101

- Umeen zapatadenda berria!
- Zatoz eta ikusi konpromisorik gabe!
- Larunbat arratsaldetan irekita!
- Oinetakoak 16tik 40 zenbakira.



MARIA ESCOBEDO

Hip-hop irakaslea

Valentziako Cheste herritik iritsi zen Maria Escobedo Elgoibarrera. 25 urte ditu, eta txiki-txikitatik dantza egitea du gustuko. Hiruzpailau urte daramatza dantza akademia batean ikasten, eta aurten irakasten ere hasi da. Bi ikasle talde ditu Elgoibarren, eta ilusioz hasi du ikasturtea.

“Dantza eginez kanporatzen ditut mina ematen dizkidaten gauzak”

Hip-hopa dantza soila baino gehiago da. Azalduko diguzu labor-labor zer den?

Kaleko kultura mugimendua da hip-hopa. Kaleko dantzariak dira, eta euren sentimenduak eta arazoak kaleratzeko erabiltzen dute dantza. Mugimendu horren barruan raperoak, graffiteroak, dantzariak eta skaterrak daude, besteak beste. Dantzarien artean ere hainbat mota daude: ni esate baterako, *new style* alorrean espezializatu naiz, baina beste mugimendu batzuk ere tartekatzen ditut.

Noiz eta nola hasi zinen hip-hop dantzatzen?

Umetan hasi nintzen dantzatzen. Euskal dantza, balleta eta gimnasia erritmikoa egin izan ditut umetan, baina, batez ere, nire logelan egin izan dut dantza. Gustuko musika jarri, eta orduak ematen nituen dantzan. Sentimenduak kanporatzeko modua da niretzat dantza.

Gazteen artean modan jarri da. Gure aitita-amamentzat trikitia zena oraingo gazteentzat hip-hopa da?

Ez da bata ala bestea. Bi dantza mota diferente dira, eta dantzariak ere ezaugarri diferenteak dituzte, baina dantza bateragarriak dira. Nire ustez, dantzak ez dira modaz pasatzen. Trikitia eta euskal dantzak betidanik ezagutu izan ditugu, eta mugimendu berri hauek georago iritsi dira gure artera. Estatu Batuetatik dator hip-hopa, baina



Donostian, esate baterako, aspalditik dantzatzen da. Elgoibarren bi dantza talde osatu ditugu, eta pozik nago.

Telebistako *Fama* saioak hip-hopa sustatu duela iruditzen zaizu?

Bai, modan jarri da, baina hori oso aldakorra da. Orain dantza saioak indarrean daudelako apuntatu daiteke jendea ikastaroetan, baina moda pasatzen denean, ez du dantzatzen jarraituko. Benetan dantzatzea gustatzen zaion jendeak segitzen du aurrera. Nire lagun batzuk *Fama* saioan parte hartzen ari dira, eta ondo iruditzen zait, baina ni ez nintzateke joango. Dantza egiteko ez dago horrelako saioetara joan beharrik. Ez daukat ezer horren kontra, baina really-tiak ez ditut gustuko.

Dantza egiteko orduan euskaldunak lotsatiak dira?

Ez zait iruditzen. Nire klaseetara datorren jendeak ez dauka dantzatzeko arazorik. Hasieran apur bat kostatu egiten da, baina egunak aurrera joan ahala, jendea oso ondo mugitzen da. Dantza egiteaz gain, asko hitz egiten dugu klaseetan. Ikasleek ondo pasatzea nahi dut, eta klastetik irribarre batekin joan daitezen saiatzen naiz.

Zer esango zenieke elgoibartarrei zure ikastaroetan parte hartzeko?

Dantzan egitea erabateko zioritasuna dela esango nieke. Gauza txar guztiak deskargatzeko modua da dantza. Mina ematen didaten gauzak dantza eginez kanporatzen ditut.

Zinemaldia eta Reala uztartuko ditu Musika Bandak domekan

Kontzertua 12:30ean izango da Herriko Antzokian



Donostiako Zinemaldiari eta Realaren mendeurrenari eskainiko dio Udal Musika Bandak kontzertua, domekan. Kontzertua 12:30ean hasiko da.

Sei film ezagunetako soinu bandak eta Realaren Txuri-Urdin ereserkiaren bandarako bertsioa joko dituzte. Aipatzekoa da, bestalde, Elgoibarko Musika Banda izan zela *Txuri-Urdiñ* abestiaren bandarako bertsioa jendaurrean jo

zuen lehenengoa. 1998ko ekainaren 14an izan zen kontzertua Herriko Antzokian, eta Ricardo Sabadie himnoaren egilea ikuskeen artean egon zen. Kontzertuaren amaieran eszenatokira igo zen txalo artean, eta Guillermo Garate orduko alkatearen eskutik garaikur bat jaso zuen. Egileak berarekiko izandako begirunea bihotzez eskertu zion Elgoibarko herriari eta bereziki Musika Bandari.

Ongarri zine-klubak Donostiako Zinemaldiko lau film eskainiko ditu irailean

Ongarri zine-klubak Donostiako Zinemaldiari buruzko zikloa antolatu du irailera-ko. Joan zen astean izan zen lehenengo proiektzioa, eta asteburu honetatik aurrera, hilabete osoan zehar emango dituzte pelikulak. Lau film izango dira guztira.

- **Genova** (M. Winterbottom, Britania Handia). 2008ko Zinemaldian zuzendari onenaren zilarrezko maskorra jaso zuen.

Barixakua 18, 22:15ean

- **La caja de pandora** (Yesim Ustaoglu, Turkia). Pelikula onenaren saria jaso zuen, eta Tsilla Chelton aktoreak zilarrezko saria jaso zuen.

Zapatua 19, 19:00/22:15; domeka 20, 19:00 eta astelehena 21, 21:30

- **Parque Via** (Enrique Rivero, Mexiko). 2008ko Zinemaldian aipamen berezia jaso zuen Muga Latindarren atalean.

Martitzena 22, 21:30 eta eguena 24, 21:30

- **Tres días con la familia** (Marc Coll, Espainia). 2009ko Zinemaldian, *Made in Spain* atalean eskainiko dute.

Eguaztena 23, 21:30 eta barixakua 25, 22:15.

Iragarki laburren gehigarria Interneten egongo da

BARREN astekariak, Bertako Hedabideak enpresarekin elkarlanean banatzen zuen iragarki laburren gehigarria Interneten bakarrik egongo da urritik aurrera. Web gunea prestatzen dihardute arduradunek, eta lehenago baino erakargarriagoa eta erabiltzeko errazagoa izango da. www.iragarkilaburrak.com atariari esker, Elgoibarko merkatu txikiko iragarkiez gain, Euskal Herri osokoak irakurtzeko aukera egongo da.

Gomendatzen dizut lehiaketa martxan da

Oporretan edo aisialdian eza gututako lekuen gomendioak egiteko lehiaketa antolatu du Gazte Informazio Guneak. Bi maila bereiztu dituzte antolatzaileek: lehenengoan 12 urtetik 17ra artekoek hartu dezakete parte, eta saria 150 eurokoa izango da. 18 urtetik 34ra artekoa da bigarren maila, eta kasu horretan saria 350 eurokoa izango da. Oporretako gomendioak egiteko azken eguna urriaren 15a da. Informazio gehiago www.aizue.com web gunean.



Graffiti eta break dance saioarekin ekin dio Gaztelekuak ikasturte berriari

Gaztelekuak antolatuta, graffitiak margotzen eta break dance dantzatzen jardun zuten Elgoibarko hainbat gaztek, joan den zapatuan. Antolatzaileen arabera, gazte asko hurbildu ziren Madalara, eta giro onean pasatu zuten arratsaldea.

Inoiz baino erabiltzaile gehiago izan dituzte Mintxetako igerilekuek, 55.046

Zabaldu zirenetik urtez urte gora egin du kopuruak



Domekan amaitu zen Mintxetako igerilekuen denboraldia, eta aurten orain arteko marka guztiak ondu ditu zerbitzugune horrek. Izan ere, inoiz baino lagun gehiagok egin dute sartu-irteera. Guztira, 55.046 erabiltzaile izan ditu, joan zen urtean baino 20.704 gehiago, hain zuzen ere. Orain lau urte zabaldu zirenetik hona, urtez urte gora egin du erabiltzaile kopuruak, nabarmen azkeneko urte

honetan. Asko izan daitezke igoera horren inguruko arrazoiak, baina Kirol Patronatuak bi azpimarratzen ditu: batetik, eguraldia bera, eta bestetik, kirol instalazio hauek izan dituzten berrikuntzak. Aurten, txiringittoa, umeentzako jolastokia eta padel pista izan dira zerbitzuetan berrikuntza nagusiak. Horrek, eta berdeguneak berak, oso erakargarri egin dituzte Mintxetako igerilekuak Debabarreneko herritarrentzat.

Palan jokatzeko deialdia

Palan jokatu nahi duten neskek orain dute aukera. Izena emateko, ikastolara joan beharko dute, hilaren 14tik aurrera, 16:00etatik 20:00ak bitartean.

Aerobic ikastaroak Mendaron

Aerobic ikastaroak hasiko dira Mendaron. Astelehenetan eta eguaztenetan izango dira ikastarook Musika Eskolan, 20:00etatik 21:00etara. Izena eman nahi duenak ikastaro orduetan egin ahal izango du. Horretarako, nahikoa da bertara agertzea.

Morkaikoren mendi irteera

Morkaikok mendi irteera bat antolatu du biharko, Lastur aldera. Elgoibarko Plaza Handitik irtengo dira mendigoizaleak 8:00etan, eta Lastur aldetik Debara arteko bidea egingo dute. Han, tren hartuko dute etxera itzultzeko. Ibilaldirako ez dago izena eman beharrik.

Irailaren 27an jokatu da Aiastia-San Migeleko igoera saltaka

Aiaastia auzoko jaien barruan, Aiastia-San Migeleko III. Igoera jokatu da irailaren 27an. Korrikalariak 11:15ean irtengo dira Plaza Handitik, eta bost kilometroko aldapa pikoa igo beharko dute. Iaz, 56 lasterkaririk parte hartu zuten proba horretan, eta urtero legez, ehunka zale batu zituen. Gizonezkoetan, Josu Arregi azpeitiarra gailendu zen, 19:38:52ko denborarekin, eta emakumezkoetan, berriz, Nerea Amilibia aiarra, 25:22:64ko denborarekin.

Proba horretan parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman ahaliko dute izena Giza Eskubideen plazan jarriko duten mahaietan. Aurrez, telefono bidez edota e-postaz ere eman ahal izango da izena: 605 772 224 zenbakian edo bestela arrizabal@arrizabal.com.

Bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere, lehenengo hirurek jasoko dute saria: txapela eta garaikurra. Horrez gain, baina, parte hartzen duten lastekari guztien artean bi bazkari zozketatuko dira Belaustegi jatetxean.



Denboraldia itxuran hasi du Concepto Createchek, hiruko torneoa irabazita

Goierri eta Aretxabaletari gailendu zaie, joko ona eginda



Concepto Createchek itxura ona erakutsi zuen asteburuan Olai-zaga kiroldegian zaleen aurrean jokaturako lehen partidari. Nazional B mailan arituko da aurten Elgoibarko areto futbol talde berritua, mailaz igotzeko helburuarekin. Hasiara, behintzat, ona egin dute, zapatuan jokatu zen hiruko torneoa irabazita. Hauexek izan ziren emaitzak: Concepto Createch 4-

Goierri 1; Goierri 0-At. Aretxabaleta 6; eta At. Aretxabaleta 0- Concepto Createch 1.

Aurrez elkarrekin aritutako jokalariek elkarren kontra jokatu izanak sortutako ikusmina eta txapelketako giro ona nabarmendu dituzte antolatzaileek.

Azken urteetan Kenci izenarekin jokatu duen taldea da Concepto-Createch. Hainbat fitxaketa egin ditu sasoi

berrirako: Valen eta Ion Cejuela Sasiko taldetik iritsi dira, eta Ion Yarza eta Juan Maria Vañes, Ceramicas Nogalestik. Andoni Saldias, berriz, Laskorain taldean aritu zen iaz. Taldean jarraitzen duten jokalariek hauek dira: Ekaitz eta Aitor (atezainak), Alkorta, Txirrol, Julen, Hector, Alex de la Vega, Alex Alonso, Mikel Garrido, Ander Garrido eta Emmanuel.

EMAITZAK

FUTBOLA

Arenas 1- Elgoibar 0 (Haundi)
Antzuola 0 - Elgoibar 2 (Erregionalak)
Elgoibar 8 - Burumendi 0 (Jubenilak)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Barixakua, 18
20:00 Elgoibar - C.D. Santurtzi (Haundi)
Zapatua, 19
11:00 Elgoibar - Lagun Onak C.D. (Infantilak)
16:30 Elgoibar - Ilintxa S.D. (Erregionalak)
18:30 Elgoibar-Aloña Mendi K.E. (Neskak)
Domeka, 20
11:00 Elgoibar - Mutriku-Txiki (Kadeteak)



I. URTEURRENA

IGNACIO MAGUREGI OSORO

"Gutxitan ezagutu degu zu bezalako gizonik"

2008ko irailaren 18an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 19, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



LANA

ESKAERA

- Haur Hezkuntzako ikasketak amaitu dituen neska, haurrak zaintzen lan egiteko prest, edozein ordutegirekin, astean zehar eta asteburuetan.
☎ 666 216 098 / 943 740 691
- Emakumea garbiketa lanak, sukaldari laguntzaile lanak edota haurrak eta nagusiak zaintzeko prest.
☎ 675 940 901
- Emakume euskalduna esperientzia handiarekin pertsona nagusiak zaintzeko. Gaeuz edo egunez.
☎ 943 744 433
- Magisteritza ikasten ari den eta aisialdiko hezitzailea den neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ 679 237 611
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest, eta garbiketa lanetarako prest. Orduka. ☎ 648 603 029
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 618 163 061
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest.
☎ 616 260 793

- Ingleseko klase partikularrak ematen dira, talde txikiak. ☎ 679 113 446

ESKAINZA

- Igeriketa Lantzen enpresak Elgoibarko kiroldegirako harrera postuan lan egiteko pertsonala behar du, astebukaeraketa ordezkapenak kubritzeko. Interesatuak igeriketalantzen@igeri.net helbide elektronikora kurrikuluma bidali.
- Sukaldeko laguntzailea behar dira. ☎ 943 743 196

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Altzolan pisua saltzen da. 3 logela, komuna, sukaldaria eta despentsa. Berrikuntza behar du. Teilatu berria. Ekonomikoa. ☎ 680 707 639

ALOKAIRUA

- Gela alokatzen da Eibarren. Zentrotik gertu. Bero-gailua, wi-fi, etxean bi lagun izateko. ☎ 620 633 434

- Santa Ana kalean pisua konpartitzeko bi pertsona behar ditut. ☎ 658 700 164
- Pisua alokagai, Elgoibar erdialdean, 3 logela, altzariekirik eta igogailuarekin. 2.solairuan.
☎ 647 128 764
- Konpartitzeko edo alokairurako pisua biltzen da.
☎ 689 062 279

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Garajea salgai, San Roken. ☎ 676 719 705
- Pista Beltzean marradun garajea alokatzen dut.
☎ 653 863 482

BESTELAKOAK

- Irailaren 4an emakume-praka marroi batzuk galdu ziren Trenbide kalean ☎ 943 254 177
- Biolina saltzen da, funda eta arkoarekin.3/4, Gara S.V. 500. ☎ 626 977 934

OHARRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neke bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



• Zorionak, **Pibitorak!** Uda amaitzearekin batera, zuen eguna ere pasatu da. Muxu bana, neskak!

TXANKAKUAREN IX. FERIA



2009ko irailak 19 - LARUNBATA
Tokia: Foruen Plaza.

Anima Zaitetz, zain gauzkazu!

TXANKAKUA Elgoibarko Merkataritza eta Zerbitzu Elkarteak
19 de septiembre de 2009 - SÁBADO • Lugar: Plaza de los Fueros.



Dirulaguntza / Subvencioak



11:00etatik 14:00etara

- Produktu/zerbitzuen erakusketa eta salmenta.
- Haurrentzako puzgarriak.
- TXU-TXU trenak herriko kaleetan zehar.
- TXANKAKUA VISA TXARTELAren stand-a.
Txartela eskatzen dutenek opari bat jasoko dute.
- OPARIA
Irailaren 14tik 19ra bitartean elkarteko edozein dendatan egindako erosketa-tiketa gordetzen baduzu (erosketa-tiket bezala zigilatuta egon behar da) opari bat jasoko duzu plazan tiketa aurkeztean (opariak bukatu arte).
- Edari eta pintxoaren txosna.

13:30etan

- 600 €-ren zozketa.
100 €-ko 6 sari erosketa baleetan.



• Zorionak, **Yolanda**, eguaztenean urteak bete zenituelako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Maria**, 2 urte egin dituzulako. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Ane**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, Noraren partez muxu bat.



• Zorionak, **Jara**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Marina, Celia, Maria eta Irene. Muxu asko!



• 8 kandela ere piztu beharrea gauda. Zorionak eta muxu handi bat denon partez.



• Zorionak, **Markel**, zure 3. urtebetetzean. Patxo handi bat etxeokoen, eta bereziki, Endikaren partez.



• Zorionak, **Olatz**, igandearen 4 urte egingo dituzulako. Ibonen partez, patxo handi bat.



• Zorionak, **Miren**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Muxu bat! Etxekoak, bereziki, Aitor eta Ainhoa.



• Zorionak, **Nora**, irailaren 13an 3 urte egin zenituelako. Oso ondo pasatu genuen. Muxuak!




• Zorionak, **Irati**, atzo 7 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat etxeokoen, eta bereziki, Alaitzen partez.



• Zorionak, **Oscar eta Angel**, zuen 1. eta 5. urtebetetzean. Muxu handi bana familiako guztien partez.



• Zorionak, **Mikel eta Leire!** Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontzan. Ondo ibili eztei bidaiari eta zoriontsuak izan. Familiakoan eta lagunaren partez.



• Zorionak, **Unai eta Jokin**, urriaren 1ean eta 18an 4 urte eta urtebetze egingo dituzulako. Besarkada handi bat etxeokoen partez.



• Zorionak, **Aitor eta Jon**, zuen 4. urtebetetze egunean.



• Zorionak, eta muxu handi bat **amama Lolita, amaxo Nekane eta Mikelkorentzat**. Familiakoan, eta bereziki Oihaneren partez.



• Eskerrik asko, **Mari**, zure laguntza eta maitasunagatik.



• Zorionak, **bikote!** Azkenean iritsi da zuen eguna. Ziur primeran pasatuko dugula. Zoriontsuak izan. Familiakoan eta lagunaren partez.



• Zorionak, **Uxue**, gaur urtebete egin duzulako. Gurasoen, eta bereziki, Danelen partez.

ZORIONAK



Zure begiek ene maitia, badute biekin ez zia. Zeruko lore miresgarria izarren pare, xoragarriak. Gazte-gaztia zira oraino, egun guztia nago zuri so. Zure begiek erotzen naute eta guztiek nahi lukete.

Mikel Laboaren kantu eder honekin, zorionak eman nahi dizkizuegu, **Elena eta Txetxu**. Rosa, Ismael, Itziar, Jose, Mari Carmen, Valerio, Ana, Jo-setxo, Fernando, Patxi eta Edurne.

OKINDEGIA

20 domeka **BOLINTXO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 18 Etxeberria (Errosario)
- 19 Ibañez
- Garitaonandia (Goizez)
- 20 Ibañez
- 21 Garitaonandia
- 22 Etxeberria (Santa Ana)
- 23 Fernandez
- 24 Yudego
- 25 Zabaleta

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.neten



18 barixakua

Erakusketa

16:00 Udaldi erakusketa

Atxutxiamaiak antolatuta, udaldiko eskularen eta argazkien erakusketa izango da Kultur Etxean. Asteburuan goizez eta arratsaldez irekiko dute (11:00-13:30/17:00-20:00).

Aisialdia

17:30 Kiribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

19 zapatua

Merkataritza

11:00 Txakakuaren feria

Txankakua elkarteko merkataria Plaza Handira irtengo dira, eta euren produktuak ikusteko eta erosteko aukera izango da.

20 domeka

Irteera

10:00 Kilimona irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta, Kilimona egingo dute txangoa. Irteera Ikastolatik.

Musika

12:30 Musika Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak Zinemaldiari eta Realaren mendeurrena uztartuko ditu.

Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *El puente sobre el rio Kwai* (I. Urkizu, martxa)
2. *West side story* (L. Bernstein, aukeraketa)
3. *Memorias de Africa* (J. Barry, filmeko gaia)
4. *Moment for Morricone* (Morricone, aukeraketa)
5. *La Mision* (R. Kerner, Gabriel's Oboe)
6. *La mascara del zorro* (J. Horner, pelikulako abestiak)
7. *Txuri-Urdiñ* (R. Sabadie, Realaren ereserkia)



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 18

Donostiako Zinemaldira irteera
15:30

ZAPATUA 19

Zinema Gaztelekuan 18:00

DOMEKA 20

Zinema Gaztelekuan 18:00

MARTITZENA 22

Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 23

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 24

Sukalde tailerra 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 18

Udalari agur festa 17:30

ASTELEHENA 21

Filma 17:30

MARTITZENA 22

Antzerki txokoa 17:30

EGUAZTENA 23

Sukaldaritza tailerra 17:30

EGUENA 24

Jolas librea 17:30

«Genova»

18, barixakua: 22:15

«La caja de pandora»

19, zapatua: 19:00/22:15

20, domeka: 19:00

21, astelehena: 21:30

La caja de pandora

Turkia, 2008. Zuzendaria: Yesim Ustaoglu. Aktoreak: Tsilla Chelton, Derya Alabora, Onur Unsal, Ovul Avkiran. 112 min.

Istanbulgo hiru anaiak dei bat jasoko dute, eta haien ama desagertu egin dela esango diete. Elkartu egingo dira haren bila joateko, baina laster sortuko dira haien arteko lehen arazoak.



Gure gomendioa

Txankakuaren feria

Irailak 19, zapatua, Plaza Handian

11:00etatik eguerdiko 14:00etara Txankakua elkarteko merkataria kalera irtengo dira. Plaza Handian jarriko dituzte produktuak ikusgai, eta, nahi duenak, erosketak egiteko aukera ere izango du. Horrez gain, edari eta pintxoen txosna, haurrentzako puzgarriak eta txu-txu trenak izango dira. Azokari amaiera emateko, 600 euro zozketa-tuko dituzte. 100 euroko sei sari banatuko dituzte, Txankakuako dendetan gastatzeko. Zozketa 13:30ean egingo dute, eta saria jasotzeko Plazan bertan egon beharko da.



Zerikasi

IKASTAROAK

Internet eta e-administrazioa

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Gaztekeraz
 Hasiera data: 2009-09-21
 Non: Elgoibarren
 Izenematea: 943 748 828

Altzariak zaharberritzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Kontsultatu
 Hasiera data: 2009-10-02
 Non: Elgoibarren
 Izenematea: 678 840 451 / 615 764 337

Hip-hop ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
 Hizkuntza: Kontsultatu
 Hasiera data: 2009-09-14
 Non: Elgoibarren
 Izena emateko: 943 744 415

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



gazte
informazioa

**Ikasturte berria,
irudi berria**

ORDUT EGIA

Goizez:

Astelehen, asteazken
eta ostiraletan 11:00 - 13:00

Arratsaldero: 16:00 - 19:00

Kudeatzailea:



EGUZKI
Asanblada gazteak

IKASTAROAK

AKSIALDIA

LANKIDETZA

DIRULAGUNTZAK

LANA

TXARTELAK

IKASKETAK

AUTOKONTSULTA

Biluzik

bidaiatEka

Sexologia Zerbitzua

ATZERRIA

informa gaituz!

Gure berbak

Hiztegixa: bedarrak eta landariak (5)

- ♦ **MADARI, madarixa:** Udarea. **Maraxa** aldaera ere bai.
- ♦ **MAHASPASA, mahaspasia:** "Uva pasa".
- ♦ **MAHATS, mahatsa:** "Uva". **Mahats-kordia:** mahats-mordoa, "Racimo de uva". **Mahats-alia:** "Grano de uva".
- ♦ **MAKAL, makala:** "Chopo". **Txopua** ere erabiltzen da.
- ♦ **MAKATZ, makatza:** Sustraitik berez irten-dako landarea, frutak ematen dituen normalean. "Silvestre". **Madari makatza, Sagar makatza.**
- ♦ **MALBA, malbia:** "Malva". Sendabelar gisa erabiltzen da. **Malba-bedar** ere erabiltzen da.
- ♦ **MARRASKILLO, marraskilla:** "Caracol". **Karakol** erabiltzen da gaur egun gehiago.
- ♦ **MASUSTA, masustia:** "Mora".
- ♦ **MIELO, mielua:** "Hinojo".
- ♦ **MIMOSA, mimosia:** "Mimosa", akazia mota bat, lore horiak ematen dituena.
- ♦ **MIZPIRA, mizpiria:** "Nispero".
- ♦ **MUGITTA, mugittia:** Belar mota bat, zelaietan hazten den arruntena.
- ♦ **ODOLDI, odoldixa:** Goroldioa. **Goroldixa** ere erabiltzen da.
- ♦ **OKARAN, okarana:** Arana.
- ♦ **OLO, olua:** Oloa, "avena".
- ♦ **ONDOZKO, ondozkua:** Zuhaitz-banakoa. *Zenbat ondozko landau dittuk gaur?*
- ♦ **ONGARRI, ongarrixa:** iz. Simaurra.
- ♦ **ONGO, ongua:** Onddoea. **Onddua** ere bai.
- ♦ **ORBEL, orbela:** "Hojarasca".
- ♦ **OREGANO, oreganua:** "Orégano".
- ♦ **OSTRO, ostrua:** Ostoa. **Aza-ostrua.**
- ♦ **OTA, otia:** Otea, "Argoma".
- ♦ **OTADI, otadixa:** iz. Otadia, ote ugari dagoen tokoa.
- ♦ **PAGO, pagua:** "Haya".
- ♦ **PAGOTXA, pagotxia:** Hirusta lore-gorria, sekularren antzekoa. **Pagotxa izan:** esap. *Mauka izan. Hori dok pagotxa, hori!*
- ♦ **PASMO-BEDAR, pasmo-bedarra:** Sendabelar mota bat, pasmoa ateratzeko erabiltzen dena.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1977

Aste honetako erretratu Joseba Panizok ekarri du BARREneko erredakziora. 1977ko Trinitate Jaietan ateratako argazkia da. Sasoi hartan marmitako lehiaketa egiten zen trinitateetan, eta Josebak bere aitarekin hartu zuen parte. Arrasta handia izaten zuen txapelketak, eta giro polita sortzen zen Plaza Handian. Argazkian azaltzen direnak Carlos (†) eta Joseba Panizo dira. Sukaldari txapel eta guzti, Arriñanoren pare lan egin zuten.



ESKERTZA

TOMAS OLAZABAL ARAMBERRI

2009ko irailaren 14an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



2009 ko SAN MIGEL JAIK

ELGOIBARKO AIASTIA AUZOAN

IRAILAK 25 - Ostirala

"GAZTEEN EGUNA"

- Arratsaldeko 18:30etan: **Kanpai jotzea** jaien hasiera adieraziz.
- 20:30etan: **TRIKI BERTSO KALEJIRA.** Ekaitz, Arantza, Andoni Egaña eta Xabi Paiarekin
- 21:30etan: **TRIKI BERTSO AFARIA**
- Gaueko 24:00etan: **DISKO FESTA**

IRAILAK 26 - Larunbata

- Arratsaldeko 17:00etan: **ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA** Euskal Herriko arraza libreko finala

ARTZAINA	HERRIA	TXAKURRA	SAILKAPENA	PROBINTZIA
JOSE ANTONIO ARRILLAGA	ELGOIBAR	LINDA	1.	GIPUZKOA
JESUS LARRAÑAGA	ZARAUZ	SERU	2.	GIPUZKOA
MIGUEL AZPURUA	OIARTZUN	BETI	3.	GIPUZKOA
PELLO SEGUROLA	MATXINBENTA	ALAI	4.	GIPUZKOA
FELIX IRIGOIEN	AMAJUR	PELLO	1.	NAFARRGA
CARLOS PINEDO	ANDAJOIA	TXIKI	1.	ARABA
CARLOS PINEDO	ANDAJOIA	XUSTER	2.	ARABA
			1.	BIZKAIA
			2.	BIZKAIA

- Gaueko 22:30etan: **HARITZ** euskal dantzari taldearen erakustaldia
- Ondoren: Erromeria **LAKET** taldearekin
- 01:00ak aldera: **BOLO TXAPELKETA**

- SARIAK:**
1. **Motoserra**
 2. **70 euro**
 3. **50 euro**
 4. **25 euro**
 5. **15 euro**
 6. **Ustekabea**

Lehenengo auzotarrentzako garaikurra.

IRAILAK 27 - Igandea

- 11:15etan: **San Migelera III. Igoera** korrika
- Goizeko 12:15etan: **MEZA**
- Ondoren: **BALTZOLA ANAIK** trikitilariak
- Arratsaldeko 17:00etan: **IDI DEMAK** Garayar (Oiartzun) Oliden (Orio) Soarte (Elgoibar)

SARIAK:

1. **900 euro, garaikurra eta mantak**
2. **800 euro eta garaikurra**
3. **700 euro eta garaikurra**

IRAILAK 29 - Asteartea

- Goizeko 11:30etan: **MEZA NAGUSIA**
- Ondoren: **ZIARDA** eta **MAÑU** bertsolariak
- Eguerdiko 13:00etan: **Pilota Partidua** **KEPA - LOIOLA** **ATXOTEGI - LIZARRALDE**
- Ondoren: **ELUSTONDO ANAIK** trikitilariak
- Gaueko 20:30etan: **AUZOTARREN AFARIA**
- Ondoren: **Elustondo anaiekin** erromeria



ELGOIBARKO UDALA

OHARRA: Aparkalekua egongo da. Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharretaz jabetuko.

Belaustegi Baserria  **JATETXEA**
Josu Mugerra
SUKALDARTZA

San Migel Gaina (Alto de San Miguel)
20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 31 02 - Fax 943 74 36 41
www.belaustegi.com

EGYR LVR
VENTA Y REPARACION



Kamen Plaza, 21 behe
Tfno.: 94 616 76 32
48270 MARKINA-XEMEIN



Erakuntza Garbiketa
eta Lorazaintzako Makinario

Pol. Olaso, Cf. Olasope 14
20670 ELGOIBAR
Tel. 943 74 08 66
Fax: 943 74 25 90
arrizabal@arrizabal.com
www.arrizabal.com

ITUARTE
PENTSUAK, S.L.

Kareaga Industrialdea, Pab. 6, Sub. 1
Telefonoa 94 616 87 46 - Fax 94 616 91 24
48270 MARKINA - XEMEIN (Bizkaia)



grupo eibar
inmobiliario

San Frantzisko kalea, 44 behea
Tel.: 943 748 002 / 689 236 537

SANTA KLARA 1. FASEA

- Azken etxebizitzak 192.000 eurotik hasita.
- 2009ko abenduan giltza ematea.

SANTA KLARA 2. FASEA

- Hurrengo eraikuntzak 8 etxebizitza izango ditu.
- 210.000 eurotik hasita.

**HASI GARA ERAIKUNTZAREKIN!
ETORRI ETA ESKATU INFORMAZIOA
KONPROMISORIK GABE!**



grupo eibar
inmobiliario

San Frantzisko kalea, 44 behea
Tel.: 943 748 002 / 689 236 537



ELGOIBAR - URRUNIBAR

- 2-3 logelako etxebizitzak.
- 171.000 eurotik hasita.
- Lehenengo faseari ekingo diogu.